



ISBN: 978-84-09-26966-6
ISNI: 0000 0004 9130 5757

Arizmendiarietaren pentsamenduak XXI. gizaldirako



AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
ELKARTASUNA	10
ASKATASUNA	17
ERABERRITZEA	22
ERAKUNDEAK	24
NORBERE AHALEGIÑA	26
HERRIAREN ONERAKO	30
LANA	30
EKOLOGIA	34
GIZATASUNA	36
NORBEREKOIKERIA	38



HITZAURREA

LANKIDETASUNAREN OINARRI, NOLAKOTASUN TA ETEKINAK

Lankidetasuna Euskal Herrian modu miragarrian errotu eta zabaldu da. Arizmendiarieta izan da “mirari” honen egile nagusia. Berak sortu, bideratu eta indartu eban gaur bizi-bizi dagoan kooperatiba sarea.

Baina gizon handi honen ardura bakarra ez zan izugarritzko eraikin hau jasotea. Ezta hainbati eta hainbati ogibidea emotea be. Bere buruan eta bihotzean sentiduten eban eraikin honek arima bat behar ebala bere nortasuna eta bizkortasuna mantenduteko. Behin eta barriro arima hau azaltzen saiatu zan.

Bat-batean, tamalez, joan jakun hain maitagarri eta miresgarri izan dan Angel Unzuetak Arizmendiarietaren idazkietan arima honen alderdi diran zortzi balore nagusi begiztau ebazan.

Lehenengo eta behin, alkartasuna. Balore honen muna, oinarria, ondorioak, arriskuak azpimarratu ebazan On Jose Mariak “Kapitalismoaren sustarrrik sakonena bakoizkeria da; Kooperatibismoarena, ostera, alkartasuna berez eta errez sortu eta indartu ez ohi dan jokerea” (1973)

Askatasunik bako bateratasuna ez da jatorritzko alkartasuna. Lankidetasunik askatasuna dau nahi eta nahiezko laguna. Gizatasuna eta morroitza alkarri auzika dihardue. “Askatasunen mina gizatasunaren agerpenik sakonetarikoa da” (1970). Baina balore bi honeek buztartzea ez da gauza samurra. Balore bi honeek ezkontzen saiatu behar gara: “kooperatiba erakundea horixe da: askatasuna eta alkartasunaren arteko buztarria (1971)”. Alkartasun bako askatasunik norberekeriara garoaz; askatasun bako alkartasunik, morroikeriara edo jauntxokeriara.

Bikote horri loturik dator erabarritzea. Arlo guztiak dabe gaurkotu eta eguneratu beharra. Lortutako mailan nagikeriaz etxunda gelditzen bagara, atzerantz egingo dogu, aurrerantz egin beharrean. “Indarbarrituten ez dana, berez indargatu eta zahartu egiten da” (1974). “Eutsi edo iraurarazo beharreko gauzak baino aldatu eta egokitu beharrekoak gehiago daukaguz arlo eta arazo askotan: ekonomia, gizarte politika eta erlijio sailetan”.

Balore honeek gauzatzeko eta egia bihurtzeko, erakundeak sortu edo barriztatzea ezinbesteko gauzea da. Bestela, balore guztiak ames hutsean gelditzen dira. Lanaren zentzua, lankidetasuna, kapitalaren helburua, etekina, norabi-

dea aldatu eban sortzaile miragarri honek. Erakundeak sortu, aberastu eta erabarritu egin ebazan. Hori izan zan bere bizitza egarririk handienetarikoa.

Erakunde erabarrituak beharrezko izanik, ez dira nahiko kooperatibak sortu, mantendu eta zabaltzeko. Bakotxaren ahalegina eta ardurea ezinbestekoak dira. Hona hemen bere esaldi batzuen sorta: “Egingo hau eginarazo eta oinarrizteko ekin eta ekin, jardun eta jardunari eutsi beharra dogu” (1973) “Zorionik izan leike norbere buru eta ahalmenak landu eta bizibarritzen ez dituanak?” (1974). Aurrerabidetsu izateko ... bakotxaren ahaleginik beharko ez danik ez daigun pentsau (1975). “Inork egin eta emongo deuskunari begira baino, geuk geurez egin geinkenez gizatasuntsuago izango gara” (1975). “Noiz ekingo ete deusagu danok bakotxak ahal leikena egiten gure lurralde hau erasoteko, lantzeko, jantzi eta loratzeko? (1975). “Ernai eta tinko geurea beste inork baino lehen geuk eratu daigun, inoren laguntzarik gitxietsi barik, baina geure ahalmen eta eskuartean sekula motel izan barik” (1975)

Jarrera eta aukera guzti honeek herriaren onura daukie helburu. “Ikastola onak, bide barri egokiak, usategi atsegingarria eta jolastekoa gizaberatsuak izan daiguzan ... ogibide eta lanbide neke aringarriagoak besteentzat eta dantoztat gehiago egiten eta erabilten ikasi behar dogu” (1973). Gizon handi honek ez dau pentsatzen Kooperatibetako langile eta kide diranentzat bakarrik. “Guretzat bezalaxe ingurukoentzat be jokabide eta erakunde barriak” ditu gogoan. Benetako herrizaletasuna eskatzen dau, ez ahozkoa bakarrik. “Ahoz danok dirudigu abertzale zintzo, egitez oso gitxi”(1969).

Zaletasun hau benetakoa dala lanaren bitartez adierazoten da. Lan egokiak menpekotasunetik atarako gaitu. Lanaren bidez gure gizatasuna lantzen dogu eta ingurukoei eskua emoten deutsegu. “Lana da gizakumeok izan geinken biderik egokiena geure buruak lantzeko” (1973). Ogibidea bai, baina ogibidea baino gehiago da lana gizakientzat. “Bakotxak bere gose eta egarri sakonenari erantzuteko izan geinken egingoa lana da” (1978). Lan barik gizasemeok igartu egiten gara, sustraibako zugatzen antzera.

Gizon-emakumei jagoken lana lankidetzeta da, ez banakokeria. Lankidetzeta hau mantenduten ez da erraza. Bide honetatik hasi diran asko banandu egin dira. Jainko Egileak ez ginduzan “paradisu” hornidu baten jarri, munduaren eder-gile, langile, ereintzaile eta jorratzaile izateko baino.

Ekologiaren ardura eskasa zan On Jose Mariaren denporan. Bere idaztietan

ardura honen kimuak agertzen dira. Etxeak, kaleak, uriak apaindu eta edertzen konbidatzen ebazan langileak. Erreka zikinak ez ziran bere gogoko. Etxe inguruak baratz batekin apaintzea desiragarri ikusten eban. Gure lurrak emonkorragoak eta zehatzago landuak ikusi nahi ebazan.

Neurri baten, gizatasuna da aparteko gizon honen pentsamenean giltzarri funtsezkoa. "Gizatasun osoa askatasunean bakarrik ezin irauli leike. Gizatasunak, askatasunaz gain, beste adar eta emaitza batzuk be behar ditu: zuzentasuna, egia, zintzotasuna, maitasuna eta edozeinentzako begirapena" (1970).

Argi eukan bere buruan zein zan kooperatibak dakarren onurarik nabarmena eta hazirik ugalkorrena: "Lanaren eta alkartasunaren bide dakarskun giza heziketa" (1970). Gizatasun bako zuzentasuna ez da beretzat jatorrizko zuzentasuna. Gizatasun barik ezarten dan zigorra ez da gizonak merezidu dauan zigorra. Azpikeriaz jokatzeta ez da gizatasunarekin ezkontzen. Norberkoi izatea eta bakarti jokatzeta ez da gizatasunarekin bateratzen. Egiazko ekonomiaren helburua gure gizatasuna zaindu eta gehitzea da. Alkartasuna eta gizatasuna alkarren eskutik doaz eta batera datoz.

Pentsakizun honeek, nahiz eta ez sarritan Ebanjelioa eta eleizearen gizarte irakaspeta aitatu ez, hor aurkitzen dabe barne-barneko oinarria. Fededun zintzo bati jagokon lez, eleizearen gizarte irakaspeta enpresa munduan haragitzea izan zan bere asmo sendo eta iraunkorra.

Euskaldun peto-petoean bihotzean bertsolari kutsu bat datza. Hona hemen gure gizon handi honen idaztietan aurkitzen dogun bertso xumea:

Bakartiok alkartu
Geure buruak landu
Jokabide barriei heldu
Hona hemen nolako burumina kendu.

+ Juan Mari Uriarte
Donostiako Gotzain ohia

ELKARTASUNA

- 1.** ELKARTASUN OIHUA ez da urdurien kezka baizik gizon helduen eta sakonen deia baino. (1968 Urria).
- 2.** Gaur ezin lezake jokabide egokiagorik eta onuragarriagorik aukeratu ELKARTASUNA baino. (1968 Urria).
- 3.** Bakarrik gutxi ahal genezake: ondo dakigu hau. Norberekoi jokatuaz inorekin ezin eratu gure burubideak. (1968 Urria).
- 4.** Elkartasun bideak gizabideak ditugu: elkartasunik ezin liteke heldu edo loratu, zuzentasun, zintzotasun eta egiazaletasun gabe: giza jokabideak dira kooperatibak zalegarri egiten dizkiguten arrazoiak. (1968 Urria).
- 5.** Elkartasun-jokabidea onartzerakoan gizonak elkartasuna indarririk eta aldatarik behar den mailaraino eramateak onik baino ez dauka. Horixe da gure kooperatibak egiten ari direna: LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA eratzekoan. (1968 Urria).
- 6.** Denok ikasi dugun gauza bat hauxe izan da: lanak zenbat eta elkarrekin hobeto eratu, orduan eta erosoago, onuragarriago egiten dugula: elkartasun-legepean arituz gero inoren murrontzatik errazago alferrarazi genezakeela. (1968 Urria).
- 7.** Jaberik nahi ez dugunok eta morroi izan nahi ez dugunok konpromiso handiak hartu behar ditugu eta arriskueta sartu. (1968 urria).
- 8.** Bakoitzak bere aldetik baino denok elkaturik, eskuz esku zahar eta berri-zaletasunik galtzeke baina zaharrekin ere ahazteke goazkien BATERA. (1969 Abuztua).
- 9.** Penagarria irizten badiogu orain arte hemen bizi izan behar duten askok ogi eta bizibide bila kanpora irten beharra izateari, azter dezagun ea lehenago zergatik beste lurraldeetara joan behar izaten zuten, eta ez dezagun ahaztu oraindik horrela jokatu beharrean izan litezkeela gure ondorengoak. (1968 Iraila).
- 10.** Denontzat onuragarri egin ditzakegun arren ere arazo asko gehienon artean, ahal balitz. (1969 Uztaila).
- 11.** Inorentzat edo besteentzat norberarentzat bezala zerbait egiten ez dakiten artean aurrerabide bizirik ezin izango da. (1969 Uztaila).

- 12.** Auzoak eta herriak jaso ahal daitezen jakitunak eta berritsuak baino hurkoen ongari diren sailetan kementsu eta sakon jokatzeko dakitenak behar dira. (1969 Uztaila).
- 13.** Geuk, denok elkaturik onartu eta jaso behar dugu gure herria. (1969 Abuztua).
- 14.** Kooperatibetan edozeinek ikasi eta erakutsi dezakeguna hau da: norbere buruari besteekin batera on egiten eta uztarriak onerako eramatea da. Uztarririk jasotzen ez dakiena gizakide baino gizakitzat delarik hobeto esan eta iritziko genioke. (1970 Otsaila).
- 15.** Nekazarion areriorik handienak geure tarteko BAKARTIAK ditugu. (1970 Martxoa).
- 16.** Nekazariok ELKARTASUN gabe ezin ezer genezake eta gure artean ELKARTASUNARI zainduta egin barik diharduenak bat baino gehiago dira. (1970 Martxoa).
- 17.** Gizonei elkartzeko bideak zabaldurik eta elkartasunezko jokabideetan zehar euren arazoak erabakitze bultzatzen ez al da gizonki jokatzeko? (1970 Martxoa).
- 18.** Bakoitzak bakarti gutxi ahal dugu baina elkartasun bidez asko. (1970 Maiatza).
- 19.** Bakartiok elkartu,
geure buruak landu;
jokabide berriei heldu,
hona hemen nola burukominok kendu. (1970 Martxoa).
- 20.** Kooperatibek izan behar dute bakoitzak bere kidekoarekin norbere arazoetan arduratzeko: bakoitzak bakarti gutxi ahal dezake baina elkartasun bidez asko. (1970 Maiatza).
- 21.** Elkartasun eta ikastearen onurak izan dituenak edozer gauza egin dezake inoren mende eta izatea ezinik eta ikasteari eta elkartasunari ekin dieten gizonen eta herriek berez uxatu izan ohi dituzte jauntxokeriak. (1970 Abuztu-iraila).
- 22.** Gure gizon eta herriak aske izan daitezeko jakitea eta elkartasuna behar ditugu ezer baino lehenago eta sakonago. (1970 Abuztu-iraila).
- 23.** Langileen indarra elkartasuna da. Fabrika langileak lortu izan duten dena, elkartu direlako lortu dute. (1970 Azaroa).
- 24.** Jakintza bideak denontzat izan daitezela, ez dirudunarentzat bakarrik. (1970 Abendua).

- 25.** Elkartasunak dauzkan onurak ahal den jende gehienentzat izan daitezela. (1970 Abendua).
- 26.** Elkartasuna, denok batuk bestearen behar izatea da gizonoi gizontasuna ematen digun haria:... gizonok elkartu gintuzkeen jostorratza hizkuntza izan behar du. (1971 Otsaila).
- 27.** Badaukagu elkartasunean gozatu beharrik asko: zenbat eta lotuago gauden edo zenbat eta indargetuago edo gutxiago garen orduan eta elkartasunaren beharrago gara. (1971 Otsaila).
- 28.** Hemen gaudenok ogibidea gaurkoz ogibidea dagokigunez izan ahal izateko beste enda eta herrialde askorekin zerikusia eta harremana izan beharra daukagu. (1971 Otsaila).
- 29.** Hizkuntza garrantzitsua da baita ogia ere. (1971 Otsaila).
- 30.** Ez gaitzan itsutu harrotasunak; ez gaitzala ito bakartikeriak. (1971 Otsaila).
- 31.** Elkartasuna ez da inoren mende izatea, bakoitza bakoitzari dagokionez izatea baino: inor ere ez gara, ez emakume ez gizon bakarti izateko eginak eta horrexegatik elkartasunak helarazi egiten gaitu, osatu, indartu, gozatu. (1971 Martxoa).
- 32.** Emakumeaz dioguna gizonentzat ere berdin da, kooperatiba sailetan elkartasuna onuratsu egin ahal izateko: elkartasuna ongarrizteko batzuek beste batzuen akatsak agerrarazten baino elkarri erakusten eta urrunago aurrerago begiratu ahal izaten ahalegindu gaitezen (1971 Martxoa).
- 33.** Batzuk jolasteko gogoia bezain elkartzeko mina sendoagoa bagenu beste-rik izango genuke denok. (1971 Uztaila).
- 34.** Gure arteko elkartasunak gizatasun-girotan indarberritu beharra dauka eta inkisidore baino laguntzaile eta zuzentasun zaleak falta handiagoa egiten dute sail eta maila denetan, denok argizaleago izan gaitezen. (1972 Uztaila).
- 35.** Egiatzko gizatasunik zuzentasun eta inorentzako begirapen gabe ezin sus-traitu dezakegu: horretan elkartasun eta aurrerabide gabe edo elkartasun eta erakunde gabe ezin antolatu dugu. (1972 Otsaila).
- 36.** Udaberrian edo udan giro onak loreak eta frutak edonon sorrarazi ohi di-tuenez, horrelaxe elkarte eta kooperatibetan ere elkartasun-minak ernearazi eta indartzen ditu asmo eta jokabide onak edo onuragarriak. (1972 Ekaina).

- 37.** Ingurukoei zer falta zaien jakin-minez bizi gaitezen horretarako bakoitzari zerk falta egiten dion baino gehiago: horrelaxe sortu eta indarrarazi behar dugu elkartasuna eta elkartasun bidez aurrerabidea. (1972 Urria).
- 38.** Norberarentzat batzen baino inorentzat ematen gehiago ahalegintzen da-kienak ugaritzen direnean aurrera egin ohi dute herriak eta gizarteak. (1972 Abendua).
- 39.** Izena ez da izana: elkartasuna mamitu egin behar da ahotan erabili baino trebeago. (1972 Abendua).
- 40.** Horretarako inork egitekoari begira baino denen artean egin dezakeena-ren ardura handiagoa izan ohi dute gizakume eta herri helduek. (1972 Abendua).
- 41.** Taldekeria da izaera eta jokaera bat kidetasun min eta elkartasun jokabi-dea beste bat. (1973 Urtarrila).
- 42.** Denon edo gehienon arazo eta jokabideak ongarritu ahal izateko inoren-tzat gehiago egin eta inoren edo besteen ardura gehiago izaten ikasi beharra daukagu. (1973 Otsaila).
- 43.** Gizaberritze urriak eta aldaketa eta iraultza indargeak izango ditugu gure herri eta auzoen onerako bakoitzak bere buruagan eta hutsalkeria eta kapri-txotan lotuegi gabiltzan arte. (1973 Otsaila).
- 44.** Zenbateraino izan ohi da guk geure kooperatibetan eskuarte eta iraba-zietatik bakoitzak eraman gabe denontzat eta gizarte-arloetarako utzi ohi du-guna? (1973.Otsaila).
- 45.** Zenbaterainokoa da gure sozialismo edo kooperatiba-zaletasuna? (1973 Otsaila).
- 46.** Bakoitzak gehiago edo gutxiago irabazteak baino falta handiagoa egiten digu beti gure elkarrean denen arteko elkartasuna bizi eta guri gordetzea. (1973 Martxoa).
- 47.** Elkartasunari elkartasuna emanez indartu behar ditugu gure gizartean ditugun arlo soilenak. (1973 Martxoa).
- 48.** Kooperatibatarrok egitez erakutsi ditzagun elkartasunak dauzkan onga-riak. (1973 Martxoa).
- 49.** Elkartzen gehiago saiatu behar den aldietan banakatzea galbidea da. (1973 Apirila).

50. Zaharrak eta berriak, lehenagokoak eta geroagokoak, denak aintzat hartu eta batuazki ditzagun eusko-izatearen alde. (1973 Apirila).

51. Elkartasunean ardazturiko kooperatibismoa ez da sozialismorako bidea bakarrik baita sozialismoan behar den jokabidea bera baino. Askatasuna bitxi tentagarria da inoren eskuetan uzteko nahiz eta geroago norbereganatzeko izan ere. (1973 Uztail-abuztua).

52. Elkartasunean hezi gabeko herria gizon eta herriak askatasuna nola egin dezakeen aurrerabidetsu jokatu ahal izateko gisan ez da erraza iruditu ahal izatea. (1973 Uztail-abuztua).

53. Elkartasun arauak edo legeak bete eta eraman ahal izateko larri eta nekez gabiltzanok, zertariko sozialismoan bizi izango ginateteke? Gure kooperatibismoak daukanik estimagarrienetarikoa giza eta herri heziketa da heziketa hau ez da berez sorrarazi ohi dena entrenamendu handia behar duena baino. (1973 Uztail-abuztua).

54. Askatasun gabeko sozialismoa elkartasun gabe izan daitekeela dirudi baina askatasunean eta askatasunerako behar dugun sozialismoak elkartasuna, elkartasun gizon eta elkarteak beharrezkoak ditu. (1973 Abuztua).

55. Kooperatiban gabiltzanok elkartasun bideetan beste batzuen atzetik joateak denok lotsatu behar gintuzke. (1973 Abendua).

56. Elkartasunaren oinarria besteenganako begirapena eta besteekiko laguntzakera da: kideasun minez bakoitzak bere buruari opa diona opa izan ohi diote ingurukoei eta horrela nortasunik galtzeke elkargoa oneratzeko da. (1973 Abendua).

57. Kooperatibon bidez lanbideak gizaberritzean ahalegindu gara elkartasun giroetan, zuzentasunezko banaketaz eta aurrerabidezko erreminta eta erakundeak. (1974 Urtarrila).

58. Gure kooperatiba jokabidea berritzea eginkizun eta erakunde horretan saiatzea ez litzateke txarto etorriko gure lurralde osoa, Euskadi, guztia industria, barazki eta nekazaritza eta abeltzaintza sail guztietan gorengo mailara jaso ahal izateko. (1974 Uztail-abuztua).

59. Horretarako bakoitzak bere pentsakizunak norbere lagun hurkoei agerraraztea beste ezer baino jokabide onuragarriagoa da: bakarti gutxi ere gutxi ahal genezake eta elkartasun pean asko ere asko denon onerako. (1974 Uztail-abuztua).

- 60.** Elkartasuna indargarritzeko bakoitzak deritzan guztia onartu beharrik ez dago zer dioen eta zer egin ohi duen, zenbatentzat eta zertarako ongarrri edo kaltegarri izan daitekeen aztertzeke. (1974 Uztail-abuztua).
- 61.** Kooperatiba erakundeen kutsu eta indarra ez da besterik askatasun eta zuzentasun minez norberak inguruko ongarrri eta elkartasun pean jokaraztera bultzatzen gaituen gogo-bizia baino. (1974 Azaroa).
- 62.** Bakarrik eta bakoitza bere aldetik elkartasun gehiago gabe ezer gutxi egin ahal izango dugu. (1975 Ekaina).
- 63.** Bakoitzak beranez eta askatasunean sorrarazitako jokabidez jarraituz gogotsu inorentzat ere sasi-kide izateke, argi eta egiazale baino. (1975 Uztail-abuztua).
- 64.** Indardun eta eskubidedun garenez ikas dezagun eta joka dezagun hurkoen eskubideekin ere begirapentsuagoak izaten eta batez ere bekigu gure artean egiaren eta argiaren beldur gutxiago eta zaletasun gehiago. (1975 Uztail-abuztua).
- 65.** Elkarrekin topeka edo ukabilka dihardugunok ez da erraz izango ingurukoekin jokabide ongarritsurik oneraztea. Langile eta jaun izan gaitezen jaun eta morroi batera ezin izan gintezke eta. (1975 Uztail-abuztua).
- 66.** Edozertarako batu eta ez sakabanatu: zitalkeriak ito eta anaitasuna zabal, eskuz esku eta ez topeka elkarri bata bestearekin argi eta garbi jokatzuz: hauxe da gure arteko egiunerik behartsuena. (1975 Iraila).
- 67.** Inoren eta inongo otseinpean bizi izatea zer den ondo dakigunez ikasi beharrekoa hauxe da: elkartasunean indartsu eta aurrerabidetsu nola jokatu amesgarri den neurrian geure izaera eta bizimoduaren eskabideei ondo erantzun al izateko. (1975 Azaroa).
- 68.** Aldaketarik asko behar dugu sail guztietan eta aldaketa horiek oinarritzeko eta onuratsu bihurtzeko taldekeria gabe elkartasunean erosotu beharko ditugu. (1975 Abendua).
- 69.** Jokabide berrien alde eta aldaketa-izpitan korapilo batzuek desegiteko eta gizabide zabalak erasotzeko laguntzarik asko beharko dugunez onerazten ditugu helburu horretara garamatzaten dei eta kide guztiak. (1975 Abendua).
- 70.** Bai, behar-beharrezkoa da elkartzea ezertarako indarririk izan dezagun. Bakoitzak bere aldetik eta norbere kontura elkartasunaren alde zer eman dezake, zertan inorenetara norbere egikera eta pentsaera molda dezake? (1976 Ekaina).

71. Elkartasuna nekez-nekez eratu beharrekoa izango denez, zerbaiterako elkarturik gaudenok geure arteko elkartasuna gorde dezagun zintzo eta tinko. (1976 Ekaina).

72. Ez bitan bananduta baizik bananduak baturik eta elkarturik askatasun eta zuzentasunaren aurrerabiderako lankideon agindupean. (1976 Ekaina).

73. Gure kooperatibak bakoitzak norbere buruari ogibidea opa izateko eta elkarturik elkarturiko taldekoei eta ingurukoei ere ogibidea eta ogibidearen indarrez jakite, irakaste, aurrerakuntza eta etorkizuna egokiarazteko elkarrekin ditugu. (1976 Ekaina).

74. Kooperatibek daramaten aldaketa kooperatiben horma barruetan hesitu beharrekoa ez da baizik kooperatiba inguruetan giza hezkuntza, giza laguntza, lanbide berrigintza eta jokabide berrietarako oinarrigintzarakoa. (1976 Uztaila).

75. Askatasun eta zuzentasun zaletasunaren agerpen egokiagorik izan al liteke kooperatiba sail eta jokabide berriak ugaritzen ahalegintzea baino herri osorako? (1976 Uztaila).

ASKATASUNA

76. Kooperatiba-ardurak ezin utz genitzake alde batera gure gizon eta herriak ogibide onak izan ditzaten. Ogibiderik ez daukanak ez al darama beragan morrontzarik garratzena? (1969 Maiatza).

77. Inoren mende era askotara izan genezake, gizonok eta herriok. (1969 Maiatza).

78. Askatasunak bere oinarriak behar ditu, ikurrinak baino lehenago. (1969 Maiatza).

79. Baina benetako askatasun zaleak bagara, geuretzat nahi ez dugun otseintzarik inori ezin opa diezaiokegu. (1970 Urtarrila).

80. HERRIA eta ASKATASUNA ahotan, berriketan, errazago erabiltzen dira bihotzez eta egitez indartu ohi baino. Kultura eta ekonomia-sailetan zer egiten dugu? (1970 Urtarrila).

81. Nahiz gure alde, nahiz geure buruen morrontzak ezin onar ditzakegu. (1970 Urtarrila).

82. Askatasun-mina gizatasun agerpenik sakonetarikoa da Baina askatasun min sakonaren uka ezindako ezaugarria norberetzat gura duguna inori opa izatea eta bakoitzari ondo iruditzen ez zaion morrontzarik inori ez ezartzea da. (1970 Urtarrila).

83. Gure kultura eta izaerari eutsi ahal izateko, ekonomia-sailetan lehenengoz beste era batera jokatzeko ikasi behar dugu eta mundu guztiari gu askatasun zaleak benetan garela adierazteko ekonomia-sailtako morrontzetan. (1970 Urtarrila).

84. Gure HERRIA askatzeko kate asko apurtu behar dira: HERRIA askatzeko gure artetik morroitzar asko uxatu edo eten behar ditugu. (1970 Urtarrila).

85. Askatasuna eta elkartasuna biak behar ditugu denok baina ez dezagun ahaztu biak ondo jasotzeak badituela bere korapiloak denok edo gehienok horren diferenteak izanik. Berbak haizeak eramaten ditu eta eginak behar ditugu elkartasun pean ondo jokatu izateko. (1970 Urtarrila).

86. Kooperatibak elkartasun-bidez askatasun-alde dihardute morrontza gehienoi higuigarri eta astun egin dakigukeen sailtan: lanbide eta ogibide sailetatik morrontza uxatzen. (1970 Azaroa).

87. Ondo ez deritzagun arazoetan jardun dezagun eta ez gaitezen isildu. Argizaletasuna eta gizatasun-giroa biak behar ditugu eta berez-berez ez dira indartuko denok edo gehienok bakoitzak bere aldetik, ahaleginak egiten ez baditugu isil-ezkutuka gabe sentitzen duguna eta esan nahi genukeena hitzeko izateak eta asmo garbiak eman diezaioketen indarrarekin esaten ez ditugun arte. (1971 Urtarrila).

88. Askatasuna eta elkartasuna batuarazten edo uztartzen ikasten ez badugu askatasunak ihes egingo digu eta bakoitzaren askatasun minetan hornitzen ez den askatasuna, ez da batasun-lokarri astuna eta antzua baino. (1971 Urtarrila).

89. Kooperatiba-erakundea horixe da: askatasun eta elkartasun uztarrria. (1971 Maiatza).

90. Jauntxokeriak eta morrontzak uxatuko ditugu gure tartean, geure arteko kateak etengo ditugu eta denontzat onuragarri izan daitekeen ekiteari bultzaz egingo diogu. (1971 Maiatza).

91. Morroi izatea mingotsa da eta oraingoz ugazaba izatea gozoa denik gutxi uste ahal izan dezake denok jaun eta jabe izan gaitezen lagunki. LANKIDE izatera jo dezagun: hauxe da kooperatiba. (1971 Maiatza).

92. Gizarte eta herri zintzo eta soilen ezaugarriak onena batasuna eta elkartasuna dira, askatasun eta zuzentasun pean girotzen direnean. (1971 Abendua).

93. Gorrotoak gizon eta herrialdeak askatu baino lotu gehiago egiten ditu berez (1972 Iraila).

94. Zuzentasun-alde asmo onez jokatzeko lotsarik edo isilperik ez dugu behar. Nor garen eta nork zer gura dugun adierazteko ez bekigu atzerapenik. (1972 Urtarrila).

95. Bakartikeria indartu ohi duten askatasun-larria egiazko gizatasuna honda dezakeen zirinaren tankerakoagoa dirudi (1972 Otsaila).

96. Bakoitzak egarri dugun askatasuna herria edo gizartea askeago egin dezakeen bidez onerazi behar dugu. (1972 Otsaila).

97. Kooperatiba batzuetan eta kooperatibista batzuen iritziz eurek onartu dituzten legeak hausterakoan ez dirudi gizatasun eta zuzentasun jokabidez dihardutenik: holako jokabidez eta holako gizakeriaz egin dezakegun rebozua ez da gure askatasuna jasoko duena, azpikeria galgarria baino, egiazko gizatasun eta askatasunaren hondamendia. (1972 Otsaila).

98. Saia gaitezen ez bakarrik onari eta zuzenari eta askatasunari argi ematen baizik argi eta garbi, zuzenki eta gizonki indar ematen ere. Horretako nor nor den jakiteak onik besterik ez dauka nor nor den ez dakigunez gero ezin jakin genezake eta. (1972 Martxoa).

99. Umekeriatan ez dugu oinarrituko askatasun sustrairik gizatasun jokabideetan baino: esan behar dena esan nahiz eta garratz eta zorrotz izan esan behar duenarentzat edo entzun beharra daukanarentzat: egin behar denari ekin eta egin horrek ongarririk izan ez arren egin beharrean dagoenarentzat: aldatu beharrekoa aldatu eta eutsi beharrekoa tinko zaindu. (1972 Martxoa).

100. Eskubideak gora eta eskubideak behera jardun izan ohi dute batzuek. ¿Giza-minez eta askatasun-zaletasunez izan ohi dira askotan horrelako jardunak? (1972 Iraila).

101. Askatasuna gizon izateko eta gizatasuna askatasun egiazko indarrez bizi gaitezen. (1972 Iraila).

102. Jauntxokeria higuin eta elkartasuna maite duten herriak eta gizonak heziketa bidez eratu behar dituzte askatasunean eta zuzentasunean euren buruak eta herri osoak zuzenarazten ekin eta jarrai behar dioten gizonak. (1972 Abendua).

103. Banaka batzuentzako edo talde batzuentzako ongari izan daitekeen askatasuna ez da gizatasunez eta ahalegin guztien bidez geureganatu behar dugun askatasuna. (1973 Urria).

104. Egia da: askatasun hori lortu ahal izateko lokarri batzuk eten beharra izango duguna eta baita erakunde batzuk aldatu beharra ere bai. Lokarriak etetekotan eta erakundeak aldatzekoan ikus eta neur dezagun, ez bakarrik guk geure taldetan onerazi diezaiokegunari baita gure herri neurri eta ongari bidez onartu beharrekoa ere, nahiz eta bakoitzaren edo batzuen iritziz onarazigarria izan ez. (1973 Urria).

105. Askatasuna zuzentasunekin josi beharrekoa da. Zuzentasuna inguruko eskubide eta iritzia ere onartu beharra duen jokabidea da. (1973 Urria).

106. Eusko kutsu eta jokabide jatorrik ezin indartu eta sustraitu genezake egia, zuzentasuna eta askatasuna alde batera utzi eta jokatu beharrean gabilzanetan. (1973 Apirila).

107. Askatasun-alde dihardugunok gure artean berdintasun gehiago eratu eta zabaldu beharra izango dugu. (1973 Ekaina).

108. Kooperatiba-erakundeen haria eta ardatza elkartasuna denez berdintasun gehiago izateko askatasuna eta askatasuna gehientzat ondo uztartzeko berdintasuna biziberritu behar dugu. (1973 Ekaina).

109. Jauntxokeria, indarkeria, bakartikeria eta abar elkartasun eta askatasun girotan ez dira jaiotzen edo jaio arren indartzen. Horrexegatik diogu kooperatiba-erakundea gure herriaren kutsu eta gogo biziari dagokiona dela eta demokrazia jokabideak sorrarazi eta sustraitu ahal izateko giza heziketa bide egokia. (1973 Ekaina).

110. Alferrik esango dugu askatasun izpitan uka ezinezkoa denik ezer: Gizatasun bideetan aurrera egin ahal izateko bakoitzak beretzat behar duen askatasuna ingurukoak behar dezakeena ere oneratu beharrekoa da. Handikeria ez da gizatasun amesgarria. (1974 Ekaina).

111. Poltsak astunak direnean, ez da erraza izaten buruak zirin-zirin ez sentitzea: dirua saltari eta kantari gizona laster egiten da zoriontsu garraztasunik eta eragozpenik gehiago izango ez duelakoan. (1974 Uztail-abuztua).

112. Utz ditzagun elkar salaketak eta zentzudun jokatu denok egia, zuzentasun eta askatasun bila eta egarri garenez. (1974 Azaroa).

113. Internazionalak ere ondo daude baina dirudienez GIZONOK ASKATASUNAREN ALDE KLASEAREN ALDE BAINO GEHIAGO EGITEN JARRAITUKO OTE DUGUN ERREZELOA DAUKAGU. (1975 Martxoa).

114. Gizon eta herriok lehen aske izan gaitezen eta askatasun girotan elkartuta batu, makilapeko eta indarkeriazko batasun eta askatasunetan ezin sinets dezakegu eta. (1975 Martxoa).

115. Askatasuna denontzat da, izan ere, behar-beharrezkoa gizatsu izan gaitezen, baina ogia ere behar-beharrezkoa dugunik ez dezagun ezetsi. (1975 Maiatza).

116. Elkartasunak txalo asko izan ohi ditu ezer ezinean eta askatasun gabe gizakiok izan ohi garenean baina, ezin uka dezakeguna da askatasun-minetan elkartasun girotik asko ito izan ohi direla. (1975 Azaroa).

117. Askatasuna behar-beharrezkoa dugu gizakiok gizatasunez bizi al izateko, baina baita elkartasuna ere gure artean indartsuak indargeak menperatu ez dezan. (1975 Azaroa).

118. Indarkeria eta odolik ez dugu behar eta geure askatasuna sustraitu behar dugu geure herriaren izateari muinari dagokionez. (1975 Azaroa).

119. Euskadin agerrarazi behar duguna ezer izan daitekeenik sendoen eta herri bezala gure ezaugarri izan beharrekoa askatasuna eta elkartasuna uztarri bat egitea da: uztarri horren bidez izan genezake indartsu eta edonon eta edozeinen artean ongarritsu eta onartuak. (1975 Azaroa).

120. Askatasun-izpien zain gauden arte giro berririk berez edo batez ere izaera gizatsuagoak ernarazi eta landu ditzagun zer komeni zaigun argi eta garbi adierazi beharra daukagu. Epelkeria, koipekeria eta ederkeria edo azalakeria gabe diogu dioguna. (1975 Abendua).

121. Gure askatasun jokabideak elkartasuna, berdintasuna eta aurrerabidea bat-batean ematen duenetarako da: gizabidea. Gizatasunetan, eratu beharreko gizabidea askatasun gabekoa ezin izan liteke. (1976 Ekaina).

122. Denok aske izan ahal izateko bakoitzak norbere beharrianak nola be-tearazi kontuan hartu beharra duenez, eguneroko ogia nola eskuratu ahal izan sakonki eratu beharrekotzat izango du. (1976 Ekaina).

ERABERRITZEA

123. Batzuk uste dute, munduan besterik ez dagoela euren baserriko ataritik ikusten dena baino. (1967 Urria).

124. Atzerria aldian daramagu, teknika eta beste aurrerakuntzak lantzen ez baditugu: morrontzari ihes egiteko ez denentzat atzerririk higuingarriena etxean bertan izan lezake. (1968 Urria).

125. Eusko jokabideetariko bat hauxe da: lainoetara baino behera begiratu: lainoetan gutxi aldatu dezakegunok lurraldean zerbait hobetu eratu dezakegun. (1969 Azaroa).

126. Buruak aldatzen ez ditugun artean soinu pozgarri gutxi entzun ahal izango ditugu gure baserri inguruetan. (1969 Abuztua).

127. Sasoiz sail berriei heldu beharra daukagu eta eginkizun hauetan denborarik ez zaigu sobratzen. (1971 Uztaia).

128. Gaurkotu gaitezen etzi inoren lotsari izateke izan gaitezen. (1971 Abendua).

129. Aldakuntza denetatik lehenena izan bedi geure buruak argitzea, lantzea, gehiago ikasten ahalegintzea honetan lege zaharrak lege denez ongarri gutxi dauka eta. (1972 Abuztua).

130. Geuk geurez eta batez ere elkartasun indarrez eta bidez aldaraztekotan saiatu gaitezen mailaz maila, zotzez zotz: gizatasun eta elkartasun giro berria sor dezagun giro horretan beste burubide eta eginbehar garratzagoak eta koproilatsuagoak jasotzeko gertatu gaitezen. (1972 Otsaila).

131. Gaurkotu gaitezen eta horretarako arduratu gaitezen geroago eta gehiago denok ikusiaz eta ikasiaz eta irakatsiaz denei elkartasun giro berritan jokabide berriak nola indartu daitezkeen. (1972 Abendua).

132. Heziketa berriaren beharra denok daukagu: elkartasun heziketa, lan-heziketa: gizatasun eta aurrerabidezko heziketa. (1972 Abendua).

133. Denok daukagu uste ohi dugun baino aldaketa sakonagoak eta azkarra goen alde egin beharra aurrerabide-sailetan tinko jokatu ahal dezagun. (1973 Otsaila).

134. Jokabide berriak giza arlo guztietan behar ditugu, ekonomia, politika eta jakintza arazo eta gai guztietan. (1973 Maiatza).

135. Guri dagokiguna ez da beste batzuek gure begietan lotsagarri egiten dituen egitea: “obras sociales” ahotan eta elkarte arazoetan atzerapena ekin-tzetan: kooperatibek lanbide berriak eta hobeak sorrarazi behar dituzte, ogibide eratsuak egokitu, orain arteko ekonomia elkarte edo erakundeen ordez gizakoi eta aurrerakoi izan dakizkigun suspertu eta jaso. (1973 Abendua).

136. Ikasle eta irakasle, gizon eta emakume, gaixo, eta gaixo-zain, zahar eta gazte denok daukagu beste era bateko bizieraren egarria, ez handikeria eta zabarkeriarena. Zenbat darabilgu zabarkeria eta handikeriatan eta zeinen gutxi giza-garapena onerazten? (1973 Abendua).

137. Ez da berrizale garelako hobeto bizi ahal izateko bizimin bizia daukagu-lako baino pentsakizun berriz jokabide bila ibiltzea: indarberritzen ez dena berez indargetu eta zahartu egiten da. (1974 Uztail-abuztua).

138. Gizakirik gehienok eta inguruan ditugun gauzarik gehienak ere etengabe-ko aldaketan daude nahiz eta guk ondo iritzi ez arren. (1974 Uztail-abuztua).

139. Aldaketok gizakion onurako egokien ardaztu eta erabaki beharra daukagu. (1974 Uztail-abuztua).

140. Zer deuseztatu, apurtu edo birrindu behar dugun pentsatzerakoan zer jarri, egin edo jaso beharko dugun eta zerekin eta zelan egin jaso ahal deza-kegun ere kontuan eduki dezagun. (1974 Azaroa).

141. Eraberritu ala eten zer da lehenen egitekoa galdezka eta eztabaidaka dabilta batzuek: berdintsu beste batzuek antzera kapitala eta lana ahotan dituztela. Guk bitartean heldu diogu lanari eta baita geure mende izan gene-zakeen kapitalari ere: bien bitartez eten eta eraberritu biak batera egiten ari gara nahiz eta gure gogoan den bezain zabal eta indartsu oraindik ez dihar-dugun. (1976 Ekaina).

ERAKUNDEAK

142. Entzutea daukagunez, oso haserre omen dira gure patrono batzuk eta kooperatibak itotzen ez badira gure herriak hondamendira omen doaz. Gure herriek ez al dute euren etorkizuna galbidean jarri, herri honetako patronoek beren irabaziak lantokiak hobeto janzten eta hornitzen baino, beren handikeria, maina eta burualdakeriak betetzen behin baino gehiagotan? (1969 Urtarrila).

143. Denok anaitasunean elkarturik jasoaraziko dugu gure herria: berari, bere izaerari dagokion erakundez moldatuko ditugu gure jarduketak. (1971 Maiatza).

144. Inor otseindutzeke eta bakardadean itotzeke aurrera egiteko izan dezakegun elkarte-erakunde egokia: horretxan bidez giza gozatuko ditugu ekin-tzaile eta lanbidea. (1971 Azaroa).

145. Aurpegiz aurpegi, eskuz esku eta edonon eta edonoiz lotsatzeke egin ditzakegun sailak handiak eta zabalak dira herriaren alde eta etorkizun bila. Horietan ere eztabaidan eta eztabaidaka ibili behar al dugu? (1972 Apirila).

146. Borrokalaria eta guda-buruak baino falta handiagoa ez al dute egiten bazter eta herrialde guztietan erakunde-arazoetan eta ogibide eta lanbide jokatibideetan trebetasuna eta elkartasun eta aurrerabide minez jokatu ahal dezaketanak? (1972 Urria).

147. Agintaritzarako agindukeriak baino inoren alde jokatzeko jakin ohi dutenak eta zuzendaritzarako trebetasuna dutenak hautetsi izan ohi dituzte herriar zintzoek. (1972 Abendua).

148. Lehenen lanaren nekeak arinduta geroztik onurak berdintsuago banatu ditzakegun erakundeak behar ditugu gure herriak aurrera jokatu ahal dezan, inoren atzean gelditzeke, inorengoen minez eta mendez izan ez gaitezen. (1973 Martxoa).

149. Lana eta lanbideak gizaberratzeko gizakiok geure askatasun eta zuzentasun mina lan-erakundeetan ere oinarritu egin behar ditugu eta gainera elkartasun-bidez lanaren garraztasun eta nekeak elkarri arindu lana onuragarriago eta aurrerabidetsuago eginez. (1973 Maiatza).

150. Eginda baino egiteko daukaguna gure herrialdean zabalagoa eta sakinagoa denez gure giza-erakundeak aurrerabidetsu eta indartsuan izateko moduan antola ditzagun denon artean. Horretarako kontzientziak indarberritu ditzagun jakitez, harreman bideak zabalduz, elkarri bakoitzaren iritzia entzun arazoak eta batez ere elkar aintzakoagotzat hartuz. (1973 Urria).

151. Errezen eta neketsuen ere beste ezer baino egokiago eskuarteratu dezakegun indarra elkartasun bidez datorkiguna da: sakondu eta korapilatu dezagun ahalik azkarren sustraitsuen elkartasunezko erakundeak. (1973 Abendua).

152. Esan eta egin, ideia onak izan eta eginarazi daitezen ondo probatu beharra daukagu berrikeria zirinetan geure herri eta buruak zikintzeke giza izaera eta erakunde berriak sustraitu ditzagun. (1974 Urtarrila).

153. Morrontzarik ez jauntxokeriarik gabe izan gaitezen beti eta denok lanean eta lanaren bidez gizagarritzeko eratuko dugu biziera, horretarako behar ditugun giza erakundeen bidez eta indarrez. (1976 Urtarrila).

NORBERE AHALEGINA

154. Gure bihotzetan zuztar sakonak dituen asmoari iruzur egiterik nahi ez dugunok sail berrietan ekin diezaiogun gogotsu. (1968 Urria).

155. Elkartasun egarria izan da kooperatibak sortu dituen espiritua eta elkartasun hariak lotzen eta indartzen dituzte kooperatiben gogoek. (1968 Urria).

156. Zuzentasuna, egia, askatasuna eta elkartasuna beharrezkoak ditugu. Nortzuk dabilta horretan zintzoago? (1968 Abendua).

157. Gizonkiago beti jo genezakeenean edo gure bazter, hiri eta inguruak ederragoitu genitzakeenean, zenbat ardura eta ahalegin egin izan ohi ditugu horretarako? (1969 Azaroa).

158. Bakoitzak beretik zintzo jokaturik jaso litzakeen sailak zabalak dira. (1969 Azaroa).

159. Elkartasuna, zuzentasuna, askatasuna eta aurrerabidea bekizkigu gure gogo-min: oinarritu ditzagun bakoitzak egin ditzakegunez. (1969 Azaroa).

160. Gure HERRIA makurturik edo oinperaturik dakusagunean odol bizitan, edozer egingo genuke askatzeko: horrelaxe dirudi baina ez da horrela. Kultura eta ekonomia sailetan zer egiten dugu? (1970 Urtarrila).

161. Ideologia lainoak alde batera utzi eta bakoitzak bere gogo eta asmoak, bere egarri eta zaletasunak hobeto asetu bagenitzake borroka bero eta bizi gutxiago eta auzi erabakitze erosoagoak izango ditugu gure artean. (1970 Martxoa).

162. Elkartzen gehiago saiatu behar den aldietan banatzea galbidea da. (1972 Martxoa).

163. Inork eman beharrekoren bat ala geuk geurez sorraraz genezakeen zerbaitek falta egiten digu? (1972 Azaroa).

164. Lehenen ekin diezaiogun sakonago eta trebeago inorentzat egin beharrekotan bakoitzari dagokiguna ondo eginez beste bidez ezin indargarritu genitzake denontzat eginbeharrak eta. (1973 Otsaila).

165. Inoiz inork ezin dezake elkartasunik marduldu bakoitzak beretik inorentzat zerbait emateko borondaterik ez daukanean. (1973 Martxoa).

- 166.** Kooperatibak indartzeko bakoizkeriazko berdintasun edo zuzentasuna ez da nahiko: kooperatibei dagokien zuzentasuna eta berdintasuna bakoitzak beretik zerbait besteentzat ematen dakienean eta denenez eratu beharrekoa da. (1973 Martxoa).
- 167.** Dirudienez herrikoi eta herri-alde jokatu ahal izateko gizarte barreneko mailakatuak izan behar dute: goragoko mailatakoek laster ahaztu ohi dute goi maila horretara gizartearen laguntasunez igo direla. (1973 Martxoa).
- 168.** Elkartasun aurrerabide gabeko askatasunarekin bakarrik lehenetan iraungo dugu nahiz eta iraultza gora eta behera deiadarka ibili. (1973 Martxoa).
- 169.** Herri eta giza zapalketak ez ditugu uxatu ahal izango herritarrak beren buruen jabe eta etorkizunaren zuzendari izateraino heltzen ez diren artean: jauntxokeria batzuk beste jauntxokeria batzuekin aldatzea ez da askatasuna lortzean beste era bateko jauntxokeriei aurrerabide ematea baino. (1973 Maiatza).
- 170.** Ez al da hobe izango beti gero eta hobeto egiteko zain egoteko, ahal duguna oraintxe bertatik egitea horretarako denborarik galtzeke? (1973 Ekaina).
- 171.** Egingo hau ez da egun batzuetan eginahalekoa: egingo hau eginarazi eta oinarritzeko ekin eta ekin, jardun eta jardunari eutsi beharra dugu. (1973 Urria).
- 172.** Inoiz edo arazo batzuetan isil-ezkutuka ibili beharra izan lezake ezer egin ahal izateko jokabide bakarra. Jokabide bakarra denean egin beharra dagoena egin ahal izateko isil-ezkutuka ibiltzeaz ezin txarretsi dezakegu. (1973 Azaroa).
- 173.** Zorionik izan al dezake norbere buru eta ahalmenak landu eta biziberritzen ez dituenak? (1974 Urtarrila).
- 174.** Irakaskuntza, heziketa, langintza, osasun zaintza, eta hainbat eta hainbat oraingo jokaera dira aldatu eta hornitu beharrekoak, kontuan hartu beharrekoa ez da zer eta zelan aldatu behar den baizik zer zeren bidez eta eskuartez aldatu eta hobetu ahal genezakeen baino. (1974 Urtarrila).
- 175.** Zer egiten dute kooperatibek? Azter dezagun horixe eta beste burges batzuen antzeko badakuskigu txarretsi ditzagun horretan. Baina inor horretan aztertzeokan begira bakoitzak bere kolkoa. (1974 Urtarrila).
- 176.** Aberatsa izan beharrik ez dago handikeria-minez oniritzi ezindako joka-bideak onartzeko. (1974 Ekaina).

177. Inoren otsein eta morroi izateke eta ezetariko jauntxokeriarik gabe jokatu eta bizi ahal izateko norbere gogoz eta elkartasun zuzenbidez egin ahal dezakeguna egin dezagun beti. (1974 Azaroa).

178. Garrantzitsua ez da eztabaidak izatea, eztabaidetan zer den oinarrizkoa eta argibidetsuagoa erabakitzea baino. (1974 Azaroa).

179. Hainbat ordu, urtean esaterako bakoitzak lautik bost mila ordu edo gehiago pentsatu ahal dugu zertan okupa genitzakeen? Batez ere, pentsatu ahal dugu zertan okupa genitzakeen gizagarritsuen? (1974 Abendua).

180. Sasi-maisuak baino bakoitzak berez gehiago ikusi eta ikasi ahal dezakeenak falta handiagoa egiten digutela esango genuke inoren irakasketarik behar ez dugunik esateke. Inoren irakatsiak norberarena ikasirik gabe ezer gutxi balioko digute. (1975 Martxoa).

181. Aurrerabidetsu izateko aurrerabide-kutsutan gaudela eta bakoitzaren ahaleginik ez denik behar izango ez dezagun pentsatu (1975 Martxoa).

182. Lurrez txikiak eta berezko ondasunetan txiroak izan arren jakitez eta egitez beti aurrerabidetsu izateko erabagitsuak izan gaitezen eta inork egin eta eman diezagukeenari begira baino geurez egin dezakegunez gizatsuago bizi ahal izango gara. Aurrera beti, beti gora: hauxe da gure oihua. (1975 Maiatza).

183. Noiz ekingo ote diogu denok bakoitzak ahal lezakeena egiten gure lurralde hau erasotzeko, lantzeko, jantzi eta loratzeko jardunetan? Horretan ume eta gazte, jai eta astegun, askatasundun eta menpeko izan arren ere badaukagu nahiko zeregin inork galarazitzeke egin genitzakeenak. (1975 Maiatza).

184. Badirudi denok onartzen dugun burubide eta jokabidea dela gizarte hau gizagarritzea baina gero eta larriago gabiltza gehienok, urduri eta zalapartaka, bakoitzak ahal duena irabazi eta lortzeko etengabeko jardunetan gizatasun kutsurik gabe. (1975 Maiatza).

185. Gure herriaren izaerari begira eta etorkizunaren alde ardura biok dira batera hartu beharrekoak gizatsu jokatu ahal izateko. (1975 Maiatza).

186. Lankideok gure herriaren etorkizunaren alde egin genetzakeen egitekorik geurekoiena hauxe da: guretzat bezalaxe ingurukoentzat ere jokabide eta erakunde berriak sorrarazi eta indartu, askatasun eta elkartasun kutsu gizagarritsuan ekin eta jarraitu ahal dezagun gure herriaren alde tinko eta trebe. (1975 Maiatza).

187. Bakoitzak egin beharko genuke ahalegin gehiago arazoak aztertu eta argibidetzen. (1975 Ekaina).

188. Gaztedion asmoak onak dira gehienetan baina izaerak ez horren interresgarri eta emankorrak, talderik askok iraultza edo erreboluzio handia dabilte ezpainetan baina norbere lanaren ahaleginaz egindakoa baino inork egindakoaren kontura hornitu eta taxutu beharrekoa. (1976 Uztaila).

189. Gazteok odoltsuak garen moduan zuhurrak ere izan gaitezen eta sailka-sailka eta iraunkor izan gaitezen ekinari eta egiteari eutsi diezaiogun. (1976 Uztaila).

190. Aldi batean jauntxokeriaz higuinduta eta inoren menpe lanean aspertuta ginenok kooperatiba zaletasuna sakon-sakonean sentitu genuen eta kooperatiben bidez langileon artean giro berria sortu ahal izango genuela iritzi izan genion. (1976 Uztaila).

HERRIAREN ONERAKO

191. Ahoz denok dirudigu oso abertzale zintzo, egitez oso gutxi, gure herriari eta gizataldeei ondo datozkienak egiten gutxi baino gutxiago. (1969 Azaroa).

192. Gure lurralde eta inguruei begiratuaz: gure gaurko egitasmoak bihar eta geroago izango ditugun eragozpen edo eskuarteak kontuan harturik eratuaz ekin dezagun elkartasun-bizitan: hauxe bedi euskaldunok gaurkoz izan deza-kegun bereziki izateko gogo bizia: hau oraingoz badaukagu, naroki izatea berez-berez etorriko zaigu: geuk geuretik eta geurenez jaso behar izango dugu Euskal Herri maitea. (1970 Martxoa).

193. Oraingoz gure aberatsak ikusten dutenez dirua onuragarriago enpleatu lezake jolas-tokietan lantoki berriak egiten baino honetan aberatsok ala herriarrok zeinek daukagu erantzupen handiagoa? (1971 Uztaila).

194. Ez al da egia? Gutariko nork pentsatu ahal izan du berak zorotsu eta norberekoi egin dituen gastuen diruekin beste batzuen beharizan askorik be-
tearaz lezakeenik? (1971 Uztaila).

195. Ikastola onak bide berri egokiak osategi atsegingarri eta jolasleku giza-beratsuk izan ditzagun edo baita ogibide eta lanbide neke-aringarriagoak inorentzat, besteentzat eta denontzat gehiago egiten eta erabiltzen ikasi behar dugu. (1973 Otsaila).

196. Elkartasunean uztartuko gaituen zuzentasuna bakoitzari bestearentzat zerbait eman eta eginarazi beharrea jarriko gaituena da: inorentzat ezer nahi ez eman eta eginarazi beharrea jarriko gaituena da: inorentzat ezer nahi ez dutenen arteko zuzentasuna ezin izan daiteke elkartasun eta aurrerabiderako behar dugun bidea. (1973 Martxoa).

197. Aspertzeke eta nekeei ihes egiteke jarrai eta jarrai, ekin eta eutsi gure herrietan aldaketa gizagarriagoak sorrarazi arte: ekonomia arloetan hazten duguna sustrai guriak izanik lore eta fruitu berriak ugari izan ahal ditzagun dagokigu. (1974 Urtarrila).

198. Edonon entzun ohi dugu gure gizartea gizagarritu beharrea garelako gi-zakiontzat izan ahal ditzakegun gure aurrerapen, jakite eta egiturak gizakiok geuk sortu eta egindako tresna eta zamakizunen mendeko bizi beharrik izan ez dezagun. (1975 Maiatza).

199. Geuretzat bezalaxe ingurukoentzat ere jokabide eta erakunde berriak sorrarazi eta indartu askatasun eta elkartasun kutsu gizagarritutan ekin eta jarraitu ahal dezagun gure herriaren alde tinko eta trebe. (1975 Maiatza).

LANA

200. Gizonaren eskuartetik onenatarikoa lana denez lanbideak eratu eta lanbideetatik otseintza edo morrontzak uxatzea egingo onuratsua da denontzat. (1970 Urtarrila).

201. HERRIA egitez jaso nahi dugunok inoren menpeko izan ez dadin lanaren buruz hornitu behar dugu kultura eta ekonomia-sailetan. (1970 Urtarrila).

202. Ez al da lana bakoitzak bere gose eta egarririk sakonenari erantzuteko izan dezakegun egingoa, nahiz norbere burua landu eta hornitzeko, nahiz in-gurukoei eskua emateko eta laguntzeko biderik zuzen eta onuragarriena. (1970 Martxoa).

203. Gizonki jokatzeko hitzak baino egiteak gehiago aintzat hartu behar ditugu. (1970 Azaroa).

204. Nor zer den jakin ahal izateko nork zer esaten duen baino nork zer egiten duen adiago hartu behar da. (1972 Azaroa).

205. Langileok lanbideen jabe eta zuzendari egin gaitezen berritsuen begira izan ez gaitezen. (1972 Azaroa).

206. Lana da gizakumeok izan genezakeen biderik egokiena geure buruak lantzeko ikastez nahiz esku-lanez baita bihotzak gizaberratzeko ere lana dugu daukagun erarik egokiena hurkoari laguntzeko eta herriak jasotzeko, edergarritzeko. (1973 Martxoa).

207. Ezin ukatu ere ahal izan genuke galarazi ez litezkeen eskubideak galazaririk daudenean ahal dena ahal daitekeen egokien eta trebetsuen egin behar harko dela gizonok uka ezindako eginbeharretan zapaldirik gaudenean. (1973 Azaroa).

208. Ikas dezagun adoretuagoak izaten eta egin behar genituzkeen egitekoak egin ahal izateko trebetasun bila azpikeria egokitasun zale baino biziagoak gaitezen. (1973 Azaroa).

209. Lana ez da bakarrik ogibidea baizik baita gizakiok behar dugun zeregina ere bakoitzak bere izatea landu eta hornitu ahal dezan. (1974 Urtarrila).

210. Behin ere ahaztu ez behar duguna hauxe da: lana bera dela gizakiontzat sakonen eta eratsuen gizakoitzen gaituen jokaera: lanaren bidez, elkartzen gara gizakiok ongarritsuen, lanaren egitez izan dezakegu biziera pozgarriagoa eta bizi-min bizi-bizia ere. (1974 Urtarrila).

211. Erakutsiko al digute sermoilariok ere gizakiok gizarte elkartsu eta ez bakti izan beharra daukagula: lankidetzta dela langintzari lehenen gozamina daramakion jokaera. (1974 Urtarrila).

212. Erreboluzio programa asko ditugu eta erreboluzionario izatea berbetan edo hizketan jardutea baino ez den artean oso zaila izango zaigu nor zer den eta zertara doan jakinaraztea. (1974 Urtarrila).

213. Egia da gure herrietan tinko lan egiten dutela gehienak baina ez da gezurra lan-sariak bizimodua gozatzeko baino geure buruak ingurukoen gainetik erakutsi ahal izateko darabilgula. (1974 Ekaina).

214. Lan gabe pentsakizun hutsean bizi izateko ez gara eginak gizakiok edo lanean eta nahiaren bidez bizigarritu egin ohi gara indargetu eta moteldu baino gehiago. (1974 Uztail-abuztua).

215. Lan gabe usteldu egiten garela dirudi gizakiok sustrai gabeko zuhaitzen antzera. (1974 Uztail-abuztua).

216. Iskanbalez eta nahasketaz urduritu baino hobe izango genuke tinkoago jardun dakigunetan eta aurrera jarraitu diharduguna egunean-egunean hobeto eginaz. (1974 Urria).

217. Mingainez baino bihotzez gure Herria maiteago dugunok badaukagu zer pentsatu eta zeri ekin denborarik pasatzen egoteko. (1974 Urria).

218. Gizakiok eskuratu ditugun tresna eta daukagun lanbideei begira orain dakusaguna hauxe da: lana baino libre daukagun edo izan genezakeen asti edo denbora zelan hobeto, edo asko izan genezakeen. (1974 Abendua).

219. Lehenago lan egin beharra geneukan atsedena hartu ahal izateko eta orain izan genezakeen atsedena eta astia gizagarritu izateko zer eta zelan jokatatu? (1974 Abendua).

220. Lan egin nahi duenarentzat, garai guztiak onak dira (1975 Abendua).

221. Gure lurralde honetan berton ikusi izan dugu behin baino gehiagotan ekinaldi baterako elkartu eta batu izan direnak ekinaldiok iraunkor izan behar dutenean laster nekatu, aspertu eta banandu izan ohi direla gizonak. (1975 Uztail-abuztua).

222. Ameslari handiak baina egile erkinak. (1975 Uztail-abuztua).

223. Aurrera egin ahal izateko eta geure buruak tente eta tinko edonon agerrazteko LANA da gure eskuartea. (1975 Azaroa).

224. Ixiltzeak jarduteak baino indar handiagoa izan dezakeela norbaitzuek uste dute. (1975 Abendua).

225. Gure elkartasunaren eta kutsuaren mami-mamiko den lana eta lanak sortu izan ohi duen kidetasuna izan bitez gure artean herrikoitasunaren sus-trairik bizigarrien. (1975 Abendua).

226. Egileak berak ez gintuen egin, sortu, inor ez zuen munduan ipini, paradisiko eder-maitale izateko baizik paradisu edo munduko edergile, langile, ereintzaile eta jorratzaile izateko baino. (1975 Abendua).

EKOLOGIA

227. Euskotarrok zor handiak ditugu gure nekazariekin. Gure baserriak ekonomia iturburu eta euskal kutsuaren gordeleku izanak ditugu eta denok, edozein ekonomia-sailetan gaudenok arduratu behar genuke arduratzen garena baino gehiago gure nekazari eta baserrien etorkizunarekin. (1969 Abuztua).

228. Gure artean elkartasun-min sakonagoa sorrarazten, gure etxe eta kaleak edo hiriak edergarriagotzen ardura gutxi izan dugu. (1969 Azaroa).

229. Jokabide berrien alde egiteko, ez da beharrezkoa gure bazterrak edozein modutan erabiltzea edo janztea: non zer eta batez ere nola egokien egin genezakeen gure ibar eta mendien edertasuna galtzeke, horrexek izan behar du denok izan behar dugun buruhauste bat. (1970 Urtarrila).

230. Beste batzuek berriz, dirurik ematen ez duten gauzak ere maite izaten dituzte: erreka garbi bat, txorien kantuak, haitz edo pago eder bat, erribera zabal bat, paisaia zoragarri bat, baso-abereak... (1970 Urtarrila).

231. Gizartean baketsu bizitzeko, denen gurari eta pentsaerei begiratu behar zaie. Fabrikak jaso, lurraldeari edertasuna kendu gabe. (1970 Urtarrila).

232. Ez dugu pentsatu behar bakarrik industria-arloak hobeto landuta jaso genezakeenik gure herria gorengo mailara gure lurrak beste era batera landu eta erabili gabe. (1974 Uztail-abuztua).

233. Herriak oso-osorik hiri bihurtu genitzake herrion arteko sailak bizilekuz eta nekazaritza edo barazkigintza berriz horniturik: industria egiten ari garenez nekazaritza edo lurra ere emankorrago eginaz inorentzako lan astunik edo gogoko ez denik opa izateke. (1974 Uztail-abuztua).

234. Elkarren inguruan eta elkartasun eta gizatasun girotan bizi ahal izateko moduan bakoitzak baratz edo zelaitxo bat landu eta horni genezakeen neurrikoa izan ahal bagenu, ¿ez litzateke hobe izango gure lurraldea edergarritu eta onuratsuago eginez denok nekazari pixka bana teknika jokabidez indargarritzeko? (1974 Uztail-abuztua).

235. Gure inguruko lurrak biziberritzeko eta hiri inguruak edergarritzeko ez litzake txarto izango bizileku berriz eta bizilekuok baratz edo ahalik emankorren landu ahal genitzakeen sailez hornituko bagenitu. (1974 Uztail-abuztua).

236. Erreka zikinak eta larrez beteriko bazter eta ibarrak, baso zikinak, zenbat eta zenbat inguru edergarritu beharrekoak ditugun ezin esan ere egin genezake. (1975 Maiatza).

237. Etxe banaka edo talde batzuek txukunak baino herri zatarrak (1975 Maiatza).

238. Gure inguruko lurak biziberritzeko eta hiri-inguruak edergarritzeko ez litzateke txarto izango bizileku berriez eta bizilekuok baratze edo ahalik emankorren landu ahal diren sailez hornituko bagenitu. (1974 Uztail- abuztua).

GIZATASUNA

239. Baina diru-gauzetan ez dakigu kristau bezala jokatzeko. Beste agindu batzuetan zorrotz ikusten ditugu gauzak. baina dirua denean lapurreta garbia izan ezik, besterik bekatua izan litekeenik pentsatu ere ez dugu egiten. (1968 Abendua).

240. Gizatasun osoa askatasunean bakarrik ezin irauli liteke: gizatasunak askatasunaz gain beste adar eta emaitza batzuek ere behar ditu: zuzentasuna, egia, zintzotasuna, maitasuna, eta edozeinentzako begirapena. (1970 Otsaila).

241. Lanari-buruz gizona gizatsuago eta lanaren etorri gizartea eskuarte-tsuago egiteko asmoz dihardute kooperatibatarak. (1970 Otsaila).

242. Giza arazoetan edozertariko egingoetan bezain hezi behar handia izan ohi dugu: jaiotzaz gizon izan arren bizimoduaren gizatsu jokatu ahal dezakegun: gizabera eta gizon-gizon izateko. (1970 Otsaila).

243. Kooperatiben onurarik egargarriena da eurek eman diezaguketen eskuarte baliotsu ez dira diruzko irabaziak, egindako tresnak edo sorrarazitako ongarriak: kooperatiben hazirik ugalkorra LANAREN ETA ELKARTASUNAREN BIDEZ dakarkiguten GIZA HEZIKETA eta GIZONAK dira. (1970 Otsaila).

244. Gizatasun-gabeko zuzentasuna ez da zuzentasuna hala dirudien arren. Gizatasun-girotan aztertu eta neurtu behar ditugu beti gizonen arteko gora beherak. (1971 Urtarrila).

245. Akats batzuk zigortu beharra izango da baina zigorra gizatasun gabe ezin aplikatu beharko da: zigortzea baino oker dabilena zuzenbideratzea garrantzitsuagoa da: zigorrak horretarako izan beharko du gizatasunez zuzentasuna eratzerik nahi dutenentzat. (1971 Azaroa).

246. Norberekoi eta bakarti izan nahi ez dutenek hitz egiterakoan kontuan eduki behar dute espiritu hau eta gizonen arteko eskubide eta eginbeharrak gizonak gizatu ahal izateko izan behar dute eta ez gazitzeko elkarrekin. (1971 Otsaila)

247. Odola eta jatortasuna ezin izan daitezke gizonen eskubide eta ibilbide edo gizabideen iturri. (1971 Otsaila).

248. Ekonomia-oinarriak eta sustraiak gizatasun-giroan gozagarritzea nahi dugunoi gure HERRIAK falta handiagoa egiten digu iparreko eta hegoaldeko hai-zeak baino. (1971 Abendua).

249. Gorrotoa edonon eta beti izan behar du higuigarria gizatasun minak ernearazi eta sustraitzeko munduan. (1972 Iraila).

250. Zer zentzuz ahal genezakeen baino gizatasun eta elkartasun gehiago izan ahal izateko zer behar dugun gehiago arduratzen gara. Hau al da gizatasun eta elkartasun biderik onena? (1974 Ekaina).

NORBEREKOIKERIA

251. Baina orain kooperatibatarron artean ez al ditugu talde handi edo ugariegiak harrokeria eta burgeskeriaz kutsatuta dirutza handiegiak nor baino nor harroago eta ase ezindakoak? (1976 Uztaila).

252. Lehenago eta orain eta gero inoiz askatasun, zuzentasun eta berdintasun minik sentitu genuenok eta dugunok ezin isildu gintezke kontsumismo hutsean kutsatuta indargetzen ari garen artean. (1976 Uztaila).

253. Herria ahotan eta bakoizkeria kolkoan. (1972 Azaroa).

254. Kooperatibak dituen areriorik indartsuenak edo kalterik handiena egin diezaioketenak ez dira inguruan edo kanpoan izan ditzaketen kontrarioa etxe-ko eta barruko epelkeria eta bakoizkeriak baino. (1973 Ekaina).

255. Elkartasun-heziketa edo humanizatzea, berez egiten dena ez da nekez eta larri lortu daitekeen aurrerabidea baino. Gehienok hezi izan gaituzte bai gure gurasoek, bai ikastolek bakoizkeriatan elkartasun kutsutan baino gehiago. Kapitalismoaren sustrairik sakonena bakoizkeria da: kooperatibismoarena, ostera, elkartasuna: berez eta erraz sortu eta indartu ohi ez den jokaera. (1973 Martxoa).

256. Badirudi gure gaztediak arnas eta espirtu berri baten minez diharduela, baina ez da askotan egia: itxuraz bai baina berrikeria eta bakoizkeria min gehiegi daukagu hitzak esanak eta jardunak baino eginak eta jokabideak aztertzen baditugu. (1973 Otsaila).

257. Euskadi ahotan hartzen dugunok bakoizkeriatik ihes eta elkartasunean eta batasunean indargarritu beharra daukagu eta inork ere uka ezindako eskubideei heldurik inork uka ezindako indarra geureganatu. (1973 Urria).

258. Bakoitzak inoren alde egiteko daukagun borondatea ez dezagun neurtu zenbat berrikeria eta asmo berri erabiltzen ditugun ikusirik baizik eta bakoizkeria zapaldurik edo norberarenetik inoren alde zenbateraino heltzen garen azterturik. (1969 Urtarrila).

259. Elkartasunak ezin dezake indarra hartu, bakoizkeriatik baztertzen ez denean. (1968 Urria).



